

Euskararen bilakaeraren argi-ilunen gurpilean: hazkundetik garapen iraunkorrera bidean

Patxi Baztarrika

Hizkuntza Politikarako sailburuordea. Eusko Jaurlaritza

hizkpol@euskadi.eus

Sarrera-data: 2016-06-03 | Onartze-data: 2016-09-14

Laburpena. Mitxelena “Euskararen bide luze bezain malkarrak” izan zituen hizpide 1977an, “Euskararen liburu zuria” izeneko libururako idatzi zuen artikulu gogoangarrian. Harrezkero, ibilbide oparoa izan du euskarak. Euskararen biziraupena genuen urte haietan kezka eta helburu; gaur egun, berriz, Euskadiko Autonomia Erkidegoko ikuspegitik begiraturatuta (lurrean horretan kontzentratzen dira euskaldun guztien % 86 eta Euskal Herriko biztanleen % 73), ez dago jokoan euskararen biziraupena (ez hainbat belaunalditara begira behintzat): bizi-indarra dugu erronka gaur. Beheranzko joera irauli eta hazkundera jarri du euskara euskal gizarteak. Euskararen bilakaera hazkunde jarraitua izatea lortu dugu azken laur hamarkadetan. Bidea, baina, ez da amaitu. Behar dugu jarraitu. “Bide luze bezain malkar” horietan hizkuntza politika eraginkorra eta aurreragarria egin nahi badugu, badira gogoan hartu behar diren genituzkeen zenbait arrisku. Arrisku horien artekoak dira, esate baterako: hizkuntza politikaren xedea oker identifikatzea (hizkuntza politikaren subjektua ez baita hizkuntza, hiztuna baizik); azken 30 urteetan euskararen egoerak izandako bilakaera behar bezala ez aitortzea; dena egin dagoela pentsatzea; euskaraz jakiteari eta euskara erabiltzeari gizartearen aitormen desberdina egitea: hainbat hiztunen artean euskara batuaren balioa apaltzea; euskara aniztasunarekin ez identifikatzea; testuinguru soziala aldatu dela ez ikustea; euskararen biziberritze prozesua periferiatik irudikatzea eta “gutarrentzat” bakarrik diseinatzea. Arriskuak arrisku, honaino iristen asmatu dugu. Eta honaino iritsi izana gizartearen eskutik ibili garen seinale da. Hauxe da, bada, nik gaur azpimarratu nahi nukeen ideia nagusia: euskararen hazkunde eta garapen iraunkorra, euskara gizarte osoak bere egitetik bakarrik etor daitekeela, sekula ez ghettotik. Euskara biziberritzearen arrakastarako ezinbestekoa izan da, eta ezinbestekoa izango da, adostasun sozial eta politiko zabalak. • **Hitz gakoak:** *Euskara, hazkunde, iraunkor, biziraupen, bizi-indar, arrisku, ghetto, adostasun.*

Abstract. In 1977 Mitxelena referred to “The roads of the Basque language that are both long and rugged” in an unforgettable article he wrote for the book entitled “The White Paper on the Basque Language”. Since then Basque has made good progress. At that time the survival of the Basque language was our concern and goal; today, by contrast, viewed from the perspective of the Basque Autonomous Community (the region where 86% of all the Basque speakers and 73% of the inhabitants of the Basque Country are concentrated), the survival of Basque is not at stake (at least not for several generations hence): the challenge right

now is its vitality. Basque society has reversed the downward trend of Basque and has put it on the road to growth. Over the last four decades we have achieved ongoing growth in the evolution of Basque. But we have not reached the end of the road. We have to keep going. If we want to implement an effective, progressive language policy down those “long, rugged roads”, there are a number of risks that we should take into consideration. They include the following: the incorrect identification of the aim of language policy (because the active subject of language policy is not the language, but the speaker); failure to properly recognise the evolution that has taken place in the situation of the Basque language over the last 30 years; thinking that there is nothing left to be done; different recognition of Basque knowledge and Basque use in society: reducing the value of standardised Basque among many speakers; failure to identify Basque with diversity; failure to see that the social context has changed; representing the process to revive Basque from the periphery and designing only “for ourselves”. The risks notwithstanding, we have managed to get this far. And getting this far is a sign that we have been walking hand in hand with society. So this is in fact the main idea that I would like to highlight today: that the ongoing development and growth of Basque can only come about because the whole society, never a ghetto, makes Basque its own. Broad social and political consensus has been and will be crucial for the success in the revival of Basque. • *Key words: Basque, growth, lasting, survival, vitality, risk, ghetto, consensus.*

ATARIKOAK

I
Nire lehenengo hitzak Soziolinguistika Klusterrari esker ona adierazteko hitzak izan behar dira, nahitaez. Esker ona, jakina, VIII. Euskal Soziolinguistika Jardunaldiaren sarrera hitzalditxoaren egitera gonbidatzeagatik. Baina esker ona baita ere, eta beste ezereen aurretik, jardunaldi honetan ezagutuko dugun “Euskararen Bilakaera Soziolinguistikoa (1981-2011)” izeneko lanketa kolektiboa abian elkarlanean jartzeagatik, Soziolinguistika Klusterraren (SLK) eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren (HPS) arteko elkarlanean zehatz esanda. Kasu honetan elkarlana ez da soilik ekonomikoa izan. Soziolinguistika Klusterrak hogeita hamar urteotan euskarak izan duen ibiliaren gaineko gogoeta egiteko proposamena mahairatu zuen une berean ekin genion elkarlanak hauspotu baitu lanketa hau. Izan ere, SLKk eta HPSk hasiera beretik adosturiko diseinuaren arabera antolatu da gogoeta prozesua (txosten nagusien aztergaiak, egileak, iruzkin egileak, eta abar). Hainbestetan hainbestek aldarrikatzen duen elkarlanaren lekuko egokia dela uste dut ekimen hau. Horrexeagatik, bada, esker ona SLKri.

Hogeita hamar urte badira zerbait, baita hizkuntza kontuetan ere. Hizkuntza-bilakaerei begiratzerakoan, urte luzetako eta belaunaldiz belaunaldiko perspektiba behar da. Horregeatik, bada, hogeita hamar urtekoa bada euskararen bilakaera sozialaren berri izateko tarte bereziki egokia. “Euskararen bide luze bezain malkarrak” daruma izenburu Koldo Mitxelena 1977an “Euskararen liburu zuria” izeneko libururako

***Euskararen
biziraupena
genuen urte
haietan helburu;
gaur egun, baina,
bizi-indarra dugu
erronka.***

***Non geunden eta
non gaude
galdetu eta
ikertzea
beharrezkoa
dugu; hiru
hamarkadotan
egindako
aurrerakadaz
jabetzea eta
gozatzea
osasuntsua da
indarberritzeko.***

Jardunaldi hau egiteko Eureka! Zientziaren Museoa aukeratu du SLKk. Leku aproposa da “zientzia eta pazientzia” behar ditugu euskararen bidean eraginkorrak izaten jarraitzeko, eta ahal bada, gainera, eraginkorragoak izateko.

idatzi zuen artikulua gogoangarriak (“El largo y difícil camino del euskara”). Harrezkero, ibilbide oparoa izan du euskarak: argi-ilun ugariren artean, noski, denetarik izan baita argiuneak gailendu diren bide “luze eta malkarretan”. Euskararen biziraupena genuen urte haietan helburu; gaur egun, baina, bizi-indarra dugu erronka. Beheranzko joerari atea itxi, hazkunde jarraituari leihoak ireki eta, korapiloak korapilo, biziraupenetik bizi-indarrerako bidea egiten daramatzagu etenik gabe azken hamarraldiok, gaur egun aurreratutako eta seguruago hasierako urteetan baino. Non geunden eta non gaude galdetu eta ikertzea beharrezkoa dugu; hiru hamarkadotan egindako aurrerakadaz jabetzea eta gozatzea osasuntsua da indarberritzeko. Izan ere, indarberritu beharra dugu etorkizuna irabaziko badugu.

Denbora honetan ikasi dugu zeinen prozesu korapilatsua eta harreman bihurrikoa den “euskararen ezagutza eta erabileraren” artekoa, edota zeinen konplexua den hizkuntza erabileren auzia. Gizarte-aldaketak tarteko, paradoxikoa badirudi ere euskararen beraren hazkunderaren ondorioak edo *krisia* medio, erronka berriak ditugu biziraupena bermatu izatek bizi-indarra sendotu eta bermatzerantzko bide “luze eta malkarretan”.

Hazkunde baten kronika da euskararen hogeita hamar urteotakoa. Baina, hazkundera atzerapausorik gabe eustearekin batera, behar dugu euskararen hazkunde jarraitua garapen iraunkor bihurtu. Horretarako behar ditugu erantzun berriak aurkitu, eredia bera egokitu egoera eta premia berrietara, ahalik eta eraginkortasun handienaz jokatzeko asma dezagun oraindik ere “luzea eta malkarra” den eta urte luzetan hala izango den euskararen bidean. Euskararen argi-ilunen gurpilean gabiltzala, betiere argiuneak gailenduz eta hazkunde jarraituari eutsiz, garapen iraunkorrerako bideak egitea eta sendotzea dugu eginkizun.

Jardunaldi hau egiteko Eureka! Zientziaren Museoa aukeratu du SLKk. Leku aproposa da nire adiskide bati entzundakoa euskararen joan-etorriaren eta etorkizunaren gaineko gogoetara ekartzeko: nire adiskideak dioenez, “zientzia eta pazientzia” behar ditugu euskararen bidean eraginkorrak izaten jarraitzeko, eta ahal bada, gainera, eraginkorragoak izateko. “Zientzia eta pazientzia” bikoteak berarekin behar du, halaber, gertatutakoa —ondo prozesu konplexua— eta gaur egungo hizkuntza errealitatea —ertz askotarikoz josia— ahalik eta ondoen ezagutzea, egin nahi dugunaren egingarritasuna zaintzeko, besteak beste. Hogeita hamar urteotan ezagutza handia sortu eta metatu da euskal soziolin-

guistikan. Horregatik guztiagatik da ezin aproposagoa “Euskararen Bilakaera Soziolinguistikoa (1981-2011)” ekimena. Behar dugu egunerokotik harantzago begirada luzatu. Ekimen hau euskal soziolinguistikan nor diren dozena bat pertsonaren ezagutzan oinarrituriko ekimena da. Hiru txosten nagusi, Iñaki Martínez de Luna, Mikel Zalbide eta Xabier Erizek egindakoak, eta haien gainean eskarmentu handiko hainbat adituk egindako iruzkin eta kontrasteak. Bihoakie denei nire esker ona, errealitatearen berri zehatzagoa ezagutzeko egin duten ekarpenagatik. Beraz, hogeita hamar urteotako euskararen bidearen gainean dozena bat adituk egin dituzten azterketa eta gogoetak zor dizkiogu ekimen honi, etorkizuneko perspektiban egindako gogoeta eta azterketak, bizi-indar beteko etorkizunaren bila egindakoak. Bidea ez baita amaitu, gutxiagorik ere.

ETORKIZUNARI BEGIRA, AUKEREN ONDOAN DITUGUN ARRISKUEI BEGIRA

I Hitzaldiari berari ekiten diodala, aitortu behar dut, euskararen bilakaerari buruzko jardunaldian sarrera-hitzaldia ematera gonbidatu nindutenean, “zer esan behar dut nik hor?” galdetu niola nire buruari. Hasieran, hizpide, “*Eta hemendik aurrera zer?*” dokumentua hartzea pentsatu nuen. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekimen eta bultzadari jarraikiz, askotarikoen ekarpenez ondu eta hitzaldi hau bera baino egun gutxi lehenago Euskararen Aholku Batzordeak aho batez onarturiko dokumentua urregorria baita, nire ustez, jardunaldian gogoetagai dugunari buruz aritzeko erreferentzia gisa. Baina hitzalditxoaren denboramugetara errenditzen zaila da dokumentua.

Hala, erabaki nuen, etorkizunari begira jarrita, ditugun aukeren ondoan, zer-nolako arrisku ikusten ditudan azaltzea, arrisku batzuen bueltan jardutea, hobeto esanda. Baina ez, inondik ere ez, ikuspegi pesimista batetik, itsu-itsuan sinesten baitut hizkuntza bat biziberritzea bermaturik dagoela hori bada herritarren eta hiztunen gogoia edo erabakia — halakorik ezean alferrekoak liratekeen bezala era bateko eta besteko eginahalak—, eta hala dela erakutsi du hamarraldiotan gure gizartearen parte zabal-zabal batek. Kontua da, gogo-erabaki horiek ez direla neurri berekoak “aldekoak” diren herritar guztiengan; eta badirela “aldekoak” ez direnak ere; eta testuingurua gero eta eleaniztunagoa dela; muga asko gainditu ditugula, baina inoiz ezagutu ez ditugun beste muga batzuk azaldu zaizkigula...non eta gizartean.

“Zer nahi dugun” bezain garrantzitsua baita “zer ahal dugun”; eta “zer ahal dugun” diodanean, ambizioz eta konpromisoz blaituta, baina aldi berean errealismoz ondo bustita jarduteaz ari naiz. Ambizioak eta egingarritasunak osatzen dutena da binomio ezinbestekoa.

**Konplexutasun
hori dator
hizkuntza
politikaren
subjektua ez
delako hizkuntza,
hiztunak baizik.**

Horregatik, aurrera egiten jarraitzeko behar-beharrezkoa dugu errealitatea ondo ezagutzea, errealitatea osotasunean ikusten ahalegintzea. “Zer nahi dugun” bezain garrantzitsua baita “zer ahal dugun”; eta “zer ahal dugun” diodanean, anbizioz eta konpromisoz blaituta, baina aldi berean errealismoz ondo bustita jarduteaz ari naiz. Anbizioak eta egingarritasunak osatzen dutena da binomio ezinbestekoa.

Euskara itzelezko aurrerapena izaten ari da. Argi-ilunen artean, bai, prozesu sozial orotan gertatu ohi den bezalatsu, baina aurrerapena: datuek hala diote. Ez gaude iluntasunean, ez da erritmoa makaldu — ezin esan besterik adierazleen argitan—, baina hemen ez du balio pilotu automatikoa jartzeak. Gizarte-aldaketen eta euskararen hazkunderaren ondorioz, errealitatea aldatu egin da, erronka berriak ditugu. Baina hori aurrera goazelako gertatzen da, maldan behera ez, baizik eta gailurrez gailur goazelako. Gailurra harrapatzean jabetzen baikara igotzeke ditugun gailur gehiagoren existentziaz.

Beraz, garrantzitsua da identifikatuta edukitzea, euskararen hazkundera hazkundera iraunkor bilakatzeko ahaleginean, bidean topa ditzakegun arriskuak ere. Kezka honen bueltan, eta bereziki jarreraren arloan, egiten ditudan apunte soil eta labur batzuk dira gaurkoak.

1. Arrisku bat da xedea oker identifikatzea; hizkuntza politikaren subjektua ez da hizkuntza, hiztuna baizik, eta horrek inplikazioak ditu.

Hasieran esan bezala, euskararen bizi-indarra dugu jokoan orain, ez biziraupena. Euskarak zenbaterainoko bizi-indarra izan dezakeen, nolako... Erabilerari —edo, agian, hobe “erabilerari” esatea— zuzenezuzenean lotzen zaion auzia da bizi-indarrarena. Gai konplexua dugu eskuartean.

Eta konplexutasun hori dator hizkuntza politikaren subjektua ez delako hizkuntza, hiztunak baizik. Oso diferentea da hizkuntza politikari begiratzeko modua, subjektutzat herritarra eta hiztuna hartuta begiratu edo “euskara eta bere normalizazioa” hartuta begiratu. Horregatik ez dago herri-aginteen borondate politikoaren esku soilik, ez eta araudiaren edo inbertsioaren baitan soilik. Behinola Joshua Fishmanek esan bezala, “gure hizkuntzak eduki dezakeen berme bakarra gu geu gara”.

Hizkuntzarena prozesu soziala da, aldaketa soziala da, gizarte demokratiko batean gerta litekeen aldaketa sozial handienetakoa. Beraz,

aldaketa estrukturala da. Horregatik da nahitaezkoa politika, horregatik dira ezinbestekoak araugintza, bitartekoak, interbentzioa. Baina horregatik da ezinbestekoa gizakien, herritarren partaidetza eta protagonismoa. Norbanakoak aktibatzeak aukera ematen duen hizkuntza politika bultzatu behar dugu, euskararen “ezagutzaileak” baino areago neurri eta modu bateko eta besteko “erabiltzaileak eta hiztunak” bilatzen dituen. Arriskua da ahaztea hizkuntza politikaren xedea pertsonak direla, horrek dituen inplikazio guztiekin.

2. Arrisku bat da ez aitortzea azken 30 urteetan euskararen egoerak izandako bilakaera.

Azken 30 urte hauetan, euskararen egoera soziala hobetu egin da, esponentzialki hobetu ere. Oinarrizko adostasun sozial eta politiko batetik abiatuta, hizkuntza politika eta plangintza zehatzak definitu eta hezur-mamitu ahal izan dira, gizarte pitzadura nabarmenik sortu gabe.

Arriskugarria da egin duguna bere neurrian ez baloratzea, eta prozesu hori “normala”, “naturala”... izan dela pentsatzea, prozesu hori erabat politikoa, soziala eta kulturala izan denean; edo uste izatea, ustezko etsaiz inguratuta, gutxi batzuek lortu dutena dela, norbera eta norberaren taldekoak ez diren gainontzeko guztien kontra, aginte politikoen alde-kotasunik gabe; edo uste izatea dekretu hutsen ustezko efektu mirifikoez, gizarte zabalaren protagonismoa gabe, politika publikoek bakarrik lortu dutena dela. Sakoneko gizarte aldaketa bat da bizitzen ari garena. Hori baloratzeak eraginkorrago izateko modua emango digu, amets antzuak eta frustrazioak saihesteko modua.

3. Baina arriskua da, era berean, “dena egina dagoela” pentsatzea.

Aurreratu duguna handia izan arren, aurreratzen jarraituko dugula ez dago ziurtatua. Euskarak gizartean oraindik bizi duen egoera desorekatuaz jabetu ez eta lozorroan geratzeak, hizkuntza-berdintasuna berez —edo ia soilik eskolaren bidez— etorriko dela sinesteak —uste okerra zalantzarik gabe—, egungo egoera kronifikatzea edo atzera egitea ekar lezake.

Esaterako, ekar lezake pentsatzea “euskara salbu da, beraz orain ingelesaren garaia da”. Jakina badela ingelesaren garaia. Euskarak eta ingelesak, ordea, ez dute funtzio berbera jokatzen gure ohizko bizimoduan. Testuinguru gero eta eleaniztunagoan bizi gara eta biziko gara. Ongi

Hizkuntzarena prozesu soziala da, aldaketa soziala da, gizarte demokratiko batean gerta litekeen aldaketa sozial handienetakoa. Beraz, aldaketa estrukturala da. Horregatik da nahitaezkoa politika, horregatik dira ezinbestekoak araugintza, bitartekoak, interbentzioa. Baina horregatik da ezinbestekoa gizakien, herritarren partaidetza eta protagonismoa.

**Euskarak
gizartean
oraindik bizi
duen egoera
desorekatuaz
jabetu ez eta
lozorroan
geratzeak,
hizkuntza-
berdintasuna
berez –edo ia
soilik eskolaren
bidez- etorriko
dela sinesteak
–uste okerra
zalantzarik gabe-
egungo egoera
kronifikatzea edo
atzera egitea
ekar lezake.**

etorri ingelesa. Behar dugu ingelesa (edo frantsesa, edo txinera, edo...), behar-beharrezkoa dute batez ere belaunaldi gazteek. Garrantzitsua da, beraz, gizarteak ongi barneratzea kontua ez dela euskara edo ingelesa hautatzea, euskara eta ingelesa hautatzea baizik, biak, bakoitza bere rolaekin. Gure gizartearen errealtate soziolinguistikoan euskara eta gaztelania egoera orekatuagora hurbildu eta iritsi artean, ezinbestekoa dugu euskararen sustapenerako politika positiboak bultzatzen jarraitzea, etengabe.

Era berean, testuinguru honetan, eta egin behar den guztia estatu egituren, lege eta aginduzko arauen bizkar uztearen aldeko aukeraren ondoan, sasi-liberalismo linguistikoan oinarritutako jarrera politikoak azaleratu daitezke, hizkuntzaren —eta hiztunaren— dimentsio soziala gutxietsiz eta helmuga norbanakoarengan bakarrik jarritz, aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa ahanzten dutenak. Arriskua da eginda-koaren handiak eginkizun duguna lausotzea.

4. Arriskua da euskaraz jakiteari eta euskara erabiltzeari aitormen desberdina egitea.

Euskaraz jakiteak eta euskara erabiltzeak ez dute prestigio bera. Gaur egun, gizartearen pertzepzioetan, ongi ikusia eta baloratua dago euskaraz jakitea. Euskara erabiltzea, ordea, ez dago hain baloratua. Tarte dago ezagutzaren eta erabileraren prestigioaren artean. Gizartearen iruditegian irabazteko dugun kontua da erabileraren prestigioarena, erabileraren legitimitatea sendotzearena. Herritarren atxikimendu afektiboa eta leialtasun praktikoa sendoago uztartzen asmatu behar dugu. Hizkuntzaren bizi-indarra erabileraren arabera da, eta faktore honetan eragitea giltzarria izango da. Herritarrek euskararen babesa eta normalizazioa erabilerarekin identifikatzea sustatu behar dugu. Horretarako, euskarazko jardunak mundu zabala, zentzu guztietan egiazki askotarikoa eta moderno den mundua, eskaini beharko du. Ditosozko erakarmena.

5. Arriskua da euskara batuaren balioa apaltzea.

Euskarak hamarkada hauetan izan duen biziberritzea zeharo ezinezkoa izango zatekeen euskara baturik izan ez bagenu. Corpus estandarrik gabe, batasunik gabe, euskarak ezin izango zituzkeen garatu gizarte moderno baten behar komunikatiboei erantzuteko hizkuntza orok behar izaten dituen erregistroak eta balia bideak. Euskara batuarena euskararen iraultza nagusietako bat dugu. Euskara batua eta euskalkiak, hizkuntza estandarra eta erregistroen aniztasuna, txanpon beraren aldeak dira.

Euskalkien gurtza eta euskara batuaren gutxiespena erakusten duten zantzuak azaleratu dira azken urteotan, apalki bada ere. Alabaina, argi baino argiago eduki eta aldarrikatu behar dugu —batik bat belaunaldi gazteen atxikimenduari begira— euskara baturik gabe guztiz ezinezkoa litzatekeela euskarazko hezkuntza sistema bat edukitzea, guztiz ezinezkoa euskarazko eskaintza unibertsitarioa edukitzea, euskara administrazioan zabaltzea, euskara teknikoak garatzea edo euskarazko hedabideak edukitzea. Munduan ez dago hizkuntza aurreraturik eredu estandarrik ez duenik, eta eredu hori gizartean ondo errotua ez duenik. Hizkuntzaren beregain-tasun eta ahalmen komunikatiboa etengabe sendotzeari begira, arriskua da euskara batua eta euskalkiak kontrajartzeko joera azaleratzea.

6. Arriskua da euskara aniztasunarekin ez identifikatzea, eta, aldiz, gatazkarekin lotzea (gatazka diodanean ez naiz iraganeko indarkeriaz bakarrik ari, gatazka zentzu zabalean hartuta ari naiz).

Askotan, gehiegitan, identifikatu izan da euskara konnotazio mota ezkor batzuekin: gatazkarekin, aukera politikoarekin, tresnakeria politikoarekin, biktimismo eta agonismoarekin, boluntarismoarekin, bazterketarekin, deserosotasunarekin, beti kexaka aritzearekin, liskarra eta tentsioarekin...

Euskara kristal kolorebakarraz ikus dadin motiboak eman izan dira gehiegitan. Paradoxikoki, gainera, kolore bateko zein besteko askoren joera izan da kristal kolorebakarrarena. Gizartearen aniztasunaren isla —edo aterpe— bihurtu behar da euskara, gizarteak erabat bere egitea nahi badugu. Era askotara identifika daitezke herritarrak euskararekin, eta identifikazio guztiak dira zilegi, askatasunez eginak eta inklusiboak diren eta baztertzaileak ez diren heinean: identifikazio afektiboa, identifikazio praktikoa, identifikazio kulturala, identifikazio politikoa, aniztasun linguistiko eta kulturalarekiko identifikazioa, belaunaldikoa, gustukoa izate hutsa, kuriositatea eta jakin-mina piztea, eta abar. Euskararen besarkada norberaren eta besteren aniztasunari uztartuta ez ikustea, arriskua da euskararentzat.

7. Arriskua da ez ikustea testuinguru soziala aldatu dela eta, beraz, euskararen erronkak ere neurri batean aldatu direla.

Gaur egungo gizartea ez da duela 30 urtekoa. Gizartea egituratzeko modua eta gizartearen ezaugarriak aldatu egin dira: demografikoki,

Gizartearen aniztasunaren isla –edo aterpe- bihurtu behar da euskara, gizarteak erabat bere egitea nahi badugu. Era askotara identifika daitezke herritarrak euskararekin, eta identifikazio guztiak dira zilegi, askatasunez eginak eta inklusiboak diren eta baztertzaileak ez diren heinean.

**XXI. mende
hasierako eta
etorkizuneko
gizartearen
tendentzia edo
ezaugarri
nagusiak
zeintzuk diren
ikertu, ikasi eta
barneratu behar
dugu, euskararen
joko-zelai soziala
nolakoa den eta
izango den
jakiteko.
Arriskua da
jarrera hori gabe
definitzea
hizkuntza
politikak eta
plangintzak.**

ekonomikoki, sozialki, kulturalki... Pertsonen arteko harremanak aldatu egin dira; gaur ez gara auzokoekin bakarrik bizi, mundu osoko jendearekin, gertakariekin, kultura eta joerekin komunikatuta bizi gara. Beste balio batzuek, beste kontsumo ohitura batzuek, beste ikuskera batzuek... hartu dute indarra. Distantziak txikitu egin dira, eta harreman birtualek ere berebiziko indarra hartu dute. XXI. mende hasierako eta etorkizuneko gizartearen tendentzia edo ezaugarri nagusiak zeintzuk diren ikertu, ikasi eta barneratu behar dugu, euskararen joko-zelai soziala nolakoa den eta izango den jakiteko. Arriskua da jarrera hori gabe definitzea hizkuntza politikak eta plangintzak.

8. Arriskua da euskararen biziberritze prozesua periferiatik irudikatzea eta "gutarrentzat" bakarrik diseinatzea.

Hizkuntza politika zeharkakoa denon ahotan dago: horrek hizkuntza politika erabakien erdigunetik beretik pentsatu eta sustatzea eskatzen du. Baina horretarako ezinbestekoa da hizkuntzen kudeaketa gizartearen garapen nukleoetan txertatzea. Begirada gizartean jartzea, ez horrenbeste euskalgintzan. Jabetzea gizarte zabalaren erdigunearen ezaugarrietan askotarikotasuna dagoela, hizkuntza kontuetan barne.

Euskalgintza sozialak eta instituzionalak elkarrekin jardun behar dute, bakoitzak bere lekutik eta bakoitzari dagokionetik eta dagokionean. Baina —eta hau da erronka nagusietarikoa— euskalgintza (euskalgintza soziala eta instituzionala) bere muga estuetatik atera eta gizarte-eragile sektorialengana hurbildu behar da, gizarte zabalera gerturatu, alegia. Gizartean lidergoa daramaten eragile askotarikoek (enpresariak, sindikatuak, alderdiak, profesionalak, kirolariak, korporazio sektorialak, elkarteak, hedabideetako erreferenteak, sare sozialetako gazteen erreferenteak, eta abar), horiek guztiek euskarazko jarduna beren jarduerarekin esparru arruntean ohizko elementu gisa barneratzea lortu behar da. Horiek baitira gizarte eragileak. Arriskua da euskararen auzia euskaltzaleen auzizat hartzen jarraitzea. Esango nuke hortik asko daukagula, paradoxikoki eta bakoitzak bere arrazoiengatik, bai euskaltzale ez direnek eta baita ere euskaltzale direnek. Arriskua da, euskarari buruz ari garenean, gizartea gure buruarekin identifikatzea.

Beste arrisku asko geratzen zaizkit aipatzeke: adibidez —horietako batzuk aipatzearen— euskaldun berrien belaunaldi berriek hartuko duten edo ez euskara etxean transmititzearen ardura; gaztelania hutsez bizi diren munduek euskararen munduekiko duten distantzia, ezjakin-

tasun eta inkomunikazioak iraungo duen edo ez; garai ekonomiko zailetan euskararen sustapenean inbertitzea luxua dela pentsatzea; edo uste izatea dena edo ia dena dirua, araua eta teknikariak direla, eta kontu hau nagusiki kontu tekniko eta teknikariena dela, letra larriz idatzitako politikaren helburu nagusietarikoaz ari garenean, hots, bizikidetzat antolatzeaz.

Arrisku gehiago ere aipa genitzake, baina ez dugu astirik.

Nolanahi ere, ideia positibo batekin geratzea nahi nuke: arriskuak arrisku, honaino iristen asmatu dugu. Eta honaino iritsi izana gizartearen eskutik ibili garen seinale da. Horrexegatik, konbentzitura nago hemendik aurrera ere asmatuko dugula. Izan ere, hauxe da nik gaur azpimarratu nahi nukeen ideia nagusia: euskararen hazkunde eta garapen iraunkorra, euskara gizarte osoak bere egitetik bakarrik etor daitekeela, sekula ez ghettotik. Euskara biziberritzearen arrakastarako ezinbestekoa izan da, eta ezinbestekoa izango da, adostasun sozial eta politiko zabala, Euskararen Legearen gainean hezurmamitutako adostasunaren neurrikoa gutxienez, indarberrituta eta ahal den neurrian zabaldua, baina inondik ere atzera egin gabe. Euskara hizkuntza bizia eta gure gizartearen kohesio-elementu izango bada, ezinbestez iritsi behar du gehiengo gero eta zabalagoengana. Ez da iritsiko denengana modu eta trinkotasun maila berarekin. Hori guztiz ezinezkoa da. Bai, ordea, konpromiso eta atxikimendu desberdinez. Hori posible da.

Jomuga hori buruan, euskara bigarren hizkuntza gisa hazten doan neurri berean, pixkanaka, euskara bere egiten dutenen leialtasun praktikoa sendotzen eta euskara lehen hizkuntza gisa higadurarik gabe indartzen asmatzen badugu, eta egun euskararengandik oso urrun, urrun edo alboan daudenen bihotz-buruetara iristeko lanean aurreratzen badugu, datozen urteetan jauzi ikusgarria emateko moduan izango gara. ●

**Gizartean
lidergoa
daramaten
eragile
askotarikoek
(enpresariak,
sindikatuak,
alderdiak,
profesionalak,
kirolariak,
korporazio
sektorialak,
elkartek,
hedabideetako
erreferenteak,
sare sozialetako
gazteen
erreferenteak, eta
abar), horiek
guztiak
euskarazko
jarduna beren
jarduera-esparru
arruntean ohizko
elementu gisa
barneratzea lortu
behar da.**